



FUNTSEZKO JARDUERAK

GREENBOTTLEren produktua hornitzaileari eskatzen zaionetik azken erabiltzaileari helarazteko ezinbestekoak ditugu hurrengo funtsezko jarduera edo produkzio faseak.

PRODUKZIOA

- **Hornidura eta biltegiatzea:**

Lehenik behar dugun freskagarrietako materiala (freskagarri-hautsak) eta botilak

beraien hornitzaileei erosten dizkiegu. Hauek biltegiatu eta web-guneko eskarien arabera eta freskagarrien kontsumoa kontuan hartuz eskaera berriak egingo dizkiegu hornitzaileei hauek eskuratzeko momentu optimoan.

- **Freskagarrien eta botilen merkaturatzea:** Unibertsitateetan ipini ditugun makinak botilak freskagarritz betetzeko prestatuta egongo dira eta botilak web gunearen bidez erosteko eskuragarri egongo dira.


- **Freskagarrien birkargatzea eta botilak bezeroari helaraztea:** makinak freskagarriak egiteko erabiliko dituen freskagarri-hautsak bukatzean, hauek birkargatzearen ardura izango dugu. Era beran, web gunearen bidez eskatu diren botilak unibertsitatean kokatutako takila automatizatuetan ipiniko ditugu, bezeroak bere erosketa jaso ahal dezan.



ARAZO KONPONKETA

Web bidezko erosketen alorrean izandako arazoak edo makinaren mantenuarekin zerikusia duten arazoek konponketa koordinatzeaz arduratuko gara. Bezeroak gure zerbitzua erabiltzean ahalik eta esperientzia hoberena izan dezan.

WEB-PLATAFORMAKO EDO SAREKO JARDUERA



Webguneko prototipoa

GREENBOTTLEren zatirik garrantzitsuenetakoa da webgunean eta sare sozialen bidezko publizitatea.

Alde batetik, erosketaren esperientzia ederra eskainiko duen web-gunea diseinatu eta eguneratuta izan beharko dugu, botilen diseinu eta modelo berriak argitaratuz eta eskaeren koordinazioaz arduratuz.

Bestalde, sare-sozial bidez egiten dugun publizitateari esker, gure publikoaren feedbacka jaso ahal izango dugu etorkizuneko kanpainak hobetzeko eta bezero potentzial gure produktuen berri izan dezaten.